

GASTEIZKO MINTZALAGUNA 11/12



Mintzalaguna egitasmoak **bost urte** beteko ditu aurten Gasteiz hirian. Urterik urte sarea handituz joan da eta dagoeneko **600 lagun inguruk** osatzen du Gasteizko Mintzalaguna.

Mintzalagunaren **helburua euskararen normalkuntzan eragitea** da, **euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak hitz egiteko ohitura ez dutenekin** (edo zailtasuna edo aukera ez dutenekin) **elkartuz**. Aisialdian kokatzen dira harreman hauek, eremu ez formalean. Programak hizketarako jariora lantzea, euskaraz mintzatzeko motibazioa eta ohitura txertatzea eta harreman sare euskaldunak ehuntzea bilatzen du.

Gurasolaguna aldaera:

Mintzalagunaren barruan gurasolaguna aldaera ere dago martxan.

Gurasolagunak **ikastetxe bereko gurasoak euskaraz hitz egiteko elkartzen** ditu etxeko hizkuntza ohituretan eragiteko xedez. Normalean hitzorduak seme-alaben zaintza beharretara egokitzen dira eta bilerak ikastetxeen inguruan egiten dira.

Aurten 14 ikastetxetan garatuko da, Armentia, Olabide, Arantzabela, Toki Eder, Koldo Mitxelena, Miguel de Unamuno, Sagrado Corazon-Karmeldarrak, Barrutia, Ibaiondo, Zabalana, Ikasbidea, Odon de Apraiz, Jesús Obrero eta Mendebaldean.

Euskararen transmisioa erronka dugu eta zentzu honetan gurasoen konpromisoa ezinbestekoa da. Aldaera hau aurrera eraman ahal izateko Ikastetxe eta Guraso Elkarrekin elkar-lana beharrezkoa da.

Mintzalagun/gurasolagun taldeen izaera:

- Gutxi gorabehera **bost edo sei pertsonen** osatuta daude.
- Taldekideak gutxienez **astean behin ordu betez** elkartzen dira nahi duten tokian eta ordutegian gogoko dituzten jarduerak egiteko (kafea hartu, poteatzera joan, paseatzera joan, euskal ikuskizunetaz gozatu...)
- Talde bakoitzean, **bi partaide mota** bereizten dira:

-Euskararen erabileran, ahozkoan gehienbat, trebatu beharra dutenak (**mintzalagunak**)

-Euskara txukun eta ondo erabiltzen dutenak (**mintzalaguntzaileak**)

***Mintzalaguntzailea** taldeko eredua da, euskaraz hitz egitera ohitzen ari den jendeari beldurak kentzen laguntzen diona. Ez da irakaslea, hizkuntza menperatzen duen heinean tadeari freskotasuna eta bizitasuna ekartzen dion laguna baizik.


- Partaideek **euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila** izan behar dute (6. urratsa edo baliokidea).

Ekintza osagarriak:

Asteroko hitzorduez gain hilean behin beste taldeetako mintzalagunak ezagutze aldera ekintza osagarriak antolatzen ditugu.

Aurten aurkezpen ekitaldiarekin emango diogu hasiera ekintza **osagarrien egitarauari. Azaroaren 3an ospatuko da** eta berezia izango da oso. Besteak beste, sukaldaritza ikastaroa, mendi irteerak, txango kulturalak eta gurasolagunei bereziki zuzendutako ekintzak ere izango ditugu, seme-alabekin egin ahal izateko ekintzak alegia.

Gutxi balitz, urtebetetzea ospatzeko kamiseta dotore bat sortu dugu iaz ospatutako logo lehiaketan irabazle suertatutako iruditik abiatuta.




11/12 matrikulazioa, urriaren 3tik 15era:

Ikasturte berri honetan **izena-emateko epea urriaren 3tik 15era luzatuko da**. Gasteizko euskaltegi, Hizkuntza Eskolan eta Gizarte Etxeetan aurkitu daitezke izena emateko eskuorriak.

Gurasolaguna aldaeran parte hartzeko, gurasoek, seme-alaben ikastetxean dituzte eskuragarri izena emateko orriak eta bertan utzi beharko dituzte bete ostean.

Aurten gainera, www.gasteizkomintzalaguna.com web-gunean ere matrikulatzeko aukera dago. 2011/2012 ikasturteko kuota 12 €-koa da.

Mintzalaguna egitasmoaren bilakaera datuetan





Datuek adierazten dutenez, Mintzalaguna Gasteizen oso beharrezkoa den programa da, iaz, 10/11 ikasturtean, 610 lagunek hartu baitzuten parte. Guztira 82 mintzalagun talde aritu ziren euskaraz mintzatzen hiriko txoko guztietan. Horien artean 12 gurasolagun talde egon ziren.

Mintzalagunen batezbesteko adina 38 urtekoa izan zen eta parte hartzaileen %76a emakumezkoak izan ziren.

Mintzalaguna aukera paregabea da gasteiztarrontzat harreman sare euskaldunak sortzeko eta lagun euskaldunak ezagutzeko. Iazko partaideen %99ak esperientzia ontzat edo edertzat hartzen du.

11/12 ikasturteko erronkak:

Ikasturte berri honetan euskaraz txukun egiten dutenengana heltzea da gure helburuetako bat. Hau da, **mintzalaguntzaile** berriak gureganatzea. Izan ere, ahozko euskara trebatu nahian dabilen jende andanak ematen du izena baina euskaraz txukun hitz egiten duten partaideak, proportzioan, ez ohi dira hainbeste. Horiek horrela, **deialdi berezia luzatu nahi diogu euskaraz mintzatzen ohituta dagoen hiztunari** ezinbesteko giltzarri baita euskararen erabilera hedatzeko.

Euskara hobetzeko, laguntzeko, erabiltzeko, bizitzeko...
MINTZALAGUNA, euskaldunon mundua.
ZU GABE EZIN, ZATOZ ETA EGIN!

Kontaktua:

Naroa Cuesta mintzalaguna@geugasteiz.com 688819118
Ane Pedruzo gurasolagunagasteiz@gmail.com 692730444
Esti Rodriguez mintzalagun@gmail.com 648907565.

Goizez GEU elkarteko bulegoetan (Pedro Asua, 2-3 3. Solairua) izango gara.

Sarean: www.gasteizkomintzalaguna.com / Facebook / Twitter

***Mintzalaguna programaren sustatzaileak:** GEU elkartea, IKA, AEK, Udaberria euskaltegia, Hegoalde euskaltegia, Euskal Herrian Euskaraz, Euskharan elkartea, Bai & by, Mondragon Lingua, Arantzabelako Oihan guraso elkartea, Ibaiondo Ikastola, Ikasbidea Ikastola, Jesus Obrero, Koldo Mitxelena, Barrutia Ikastola, Zabalzana Ikastetxea, Miguel de Unamuno, Mendebaldea, Odon de Apraiz Ikastola, Tokieder Ikastola, Olabide Ikastola, Armentia Ikastola, Carmelitas Sagrado Corazón

***Mintzalaguna programaren babesleak:** Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza, Eroski, Vital Kutxa

***Mintzalaguna programaren laguntzaileak:** Topagunea, Hala Bedi Irratia, Diario de Noticias de Álava, Radio Vitoria, Denon Eskola